

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2017 Foru Dekretua, irailaren 19koa, aldatzen duena maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskina. Foru Dekretu horren bidez, onarpena eman zitzaizen xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren bidez, onarpena eman zitzaizen xedapen orokorrak egiteko prozedurari (I. eranskina), arau eraginari (II. eranskina) eta genero eraginari (III. eranskina) buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei (IV. eranskina).

Foru dekretu horren I. eranskinean jasoriko prozedura aplikatuz, agerian jarri dira hura aldatzeko arrazoiak; hau da, hutsen bat zuzentzeko eta, era berean, administrazio jardueraren eraginkortasun eta efizientzia printzipioak harmonizatu eta segurtatzeko arrazoiak.

Alde batetik, nola xedapen gehigarrietatik lehenengoak adierazten duen ez zaiela aplikatuko foru dekretu hau zerga premiazko araugintzako dekretuei, salbu eta arau eraginaren txostenari eta legezkotasun kontrolari dagokionez, pentsa dezakegu araugintzako kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin beharra ere salbuesten duela, eta ez da hala.

Ondorioz, xedapen gehigarri horretan erantsi behar da txosten hori ere nahitaez egin behar dela.

Bestalde, adierazi behar da Batzar Nagusiek foru arau proiektuen bidez ematen diela onarpena Arabako 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamenduari buruzkoak, 6.2 artikuluko a) letrako 2, 5 eta 7 idatz zatietan eta b) letrako 3. idatz zatian zerrendatutako foru aldundiaren jardunei. Foru arau proiektu horien bidez, foru gobernuaren zenbait proposamen berretsi eta baimendu baino ez baitira egiten, eta proposamen horietan askotan biltzen da, arloko araudian xedatutakoarekin bat etorritik, herritarrek parte hartzeko aurretiazko eta berariazko izapide bat.

Horregatik, foru arau aurreproiektu zehatz horiek egitean, ez da zertan egin araugintzan herritarrek parte hartzeko izapidea.

Azkenik, egiaztatu da datu pertsonalen fitxategiak onartzen, aldatzen edo ezabatzen dituzten xedapenak xedapen gehigarrietako bigarrenak bigarren paragrafoan jasotzen dituen salbuespenen antzeko hipotesiak direla eta, beraz, egoki jotzen da jasotzea

Hori dela-eta, foru organoei beren erakundeetako antolamendu, funtzionamendu eta araubidearen arloan onartutako eta emandako eskumen eskusiboa erabiliz, egokituz jotzen da aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskina, lehen aipatutakoari dagokionez.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak eta administrazio prozedura erkidearen oinarri-zko araudiak jasotzen dituzten arautze egokiaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean errespetatu egin dira beharraren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da premia dagoela argitzeko, alde batetik, eta aldatzeko, bestetik, zenbait araugintza xedapen lantzeko prozedura; gainera, arau aldaketa hori neurritsua da, aldatu beharreko gutxienezkoa baino ez baita aldatzen xedea erdiesteko; hau da, arau esparru argi eta egonkorra izatea.

Segurtasun juridikoaren printzipioa ere bermatzen da, zeren eta nahikoa arrazoitzen baita nola hura ordenamendu juridikoan sartzen dela hala interes publikoko kausa dagoela, arauaren aldaketa justifikatzen duena.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; nola antolamenduari baino ez dagokion, posible da ez izapidetzea jendaurrean jartzeko izapidea; edonola ere, ALHAOn argitaratzeko aginduko da, hura onartu bezain laster.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie administratuei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Hori dela bide, Arabako Diputatu Nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren xedapen gehigarrietatik lehenengoa. Foru Dekretu horren bidez, onarpena ematen zaie xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei.

“Lehenengoa. Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak..

Edonola ere, ez zaie aplikatuko foru dekretu honetan xedatutakoa zerga premiazko araugintzako proiektuei, hau da, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, II. tituluko IV. kapituluari aipatzen dituen horiei, , salbu eta arauaren eraginari buruzko txostenak, aurrekontu gorabeherari buruzko txostenak eta legezketasunari buruzko txostenak, hurrenez hurren eranskin honen 14 artikuluko 3 y 5 puntuetan eta 16. artikuluan aipatutakoak.”

Bigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei onartzen duena, I. eranskinaren bigarren xedapen gehigarriko a letrari bosgarren paragrafo bat gehitzea. Hona hemen hura:

“Bosgarrena. 1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamenduari buruzkoak, 6.2 artikuluko a) letrako 2, 5 eta 7 idatz zatietan eta b) letrako 3. idatz zatian jasoriko onarpen eta berreste foru arau proiektuak.”

Hirugarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei onartzen duena, I. eranskinaren bigarren xedapen gehigarriko b letrari laugarren paragrafo bat gehitzea. Hona hemen hura:

“Laugarrena. Datu pertsonaletako fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko eta fitxategi horien zerrenda eguneratzeko izaera orokorreko xedapenak.”

Azken xedapena

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 19a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria
NEKANE ZEBERIO GANZARAIN